



LANALDIA LUZATZEAREN AURKA

Ertzaintzako sindikatuak diren ErNE, ELA, ESAN, SIPE eta EUSPELeK, Ertzaingoari asteko 35 orduetik 37,5 ordutara luzatzeko asmoa salatu nahi dute.

Aintzat hartzen dugu Erakunde Publikoek egin duten kudeaketa ekonomiko negargarriak eragindako “Krisi” egoera aitzakia kaskarra eta atzerakoia dela lanaldiaren luzatzea ezartzeko eta langilegoak ez dutela zertan jasan.

Dagoeneko langile bezala gure duintasuna erasotzen duten murrizketa oso larriak pairatzen ari gara, soldaten murrizketa bezalakoak, erretiroagatik osagarrian atzera egitea ezartzea, behin-behineko Lan Ezintasunean egoteagatik soldata gutxitzea, erdietsi diren akordioak ez betetzea, etabar, eta orain, gainera, urteko lanaldia luzatzeko asmoa ezarri nahi digute.

Dagoeneko nozitzen eta pairatzen ari garen murrizketak onartezinak dira (horien aurka borrokatzen ari gara), gainera, asmo honekin erasoka etortzeko.

Langile bezala ditugun eskubideen aurkako gehiegikeri berri hau ez dugu onartuko, beraz, Eusko Jaurlaritzari zein Herrizaingo Sailari dei egiten diegu Funtzionario denei ez diezaietela ezarri neurri hau, eta noski ezta Ertzaintzako langilegoari ere. Beraien aurka mobilizazioak egingo ditugu, geure ezadostasuna adierazi eta etengabeko gehiegikeri eta inposaketei aurka egiteko.

Beste ekintza orokorrangoak alboratu gabe, geure kolektiboari dagokionez ekintza hauek maiatzaren batetik aurrera egingo dira, eta “izunei Stop” goiburua duen trafiko kontzientziazio kanpaina batekin hasiko da, gaur egun Ertzaintzan “Egunsentia” deitzen dena, hau da, emaitzen kudeaketa hutsean, denbora eta estatistikan, oinarritzen den lan sistemaren aurkako ekintzekin jarraituz.

Bilbon, 2012ko apirilaren 20a.

ErNE

ELA

ESAN

SIPE

EUSPEL